

Nesken futbola indartsu Ermuan

Ermuko futbol taldeak aurtan sortu berri du nagusien neska taldea. Gogotsu ekin diote eta jada neurketa gutxi geratzen zaizkie denboraldia amaitzeko. Horrez gain, Ermuko Ikastolak ere nesken futbol taldea aurkeztu du aurtengoan, infantil mailakoa hain zuzen. Bi taldeekin izan gara beraien berri gehiago jaso asmoz.

Ermuko futbol taldeak aspalditik zuen nesken taldea ateratzeko ideia baina azkenean aurtan gauzatu ahal izan dute asmo hori. Ivan Quintas da taldeko entrenatzailea. Guztira, 23 neskek hasi zuten denboraldia, horietako batzuk taldea utzi ostean, egun 18 neska daude bere aginduetara. Bizkaia mailako ligan aritu dira beste 15 talderekin lehia gogorrean. Sailkapenaren atzeko postuetan diren arren, oso esperientzia polita dela aitortu digu Ivan entrenatzaileak. Denboraldia amaitzeko, 7 neurketa gelditzen zaizkie. Datorren urteari begira ere, asmo onak dituzte bai futbo-



lariet bai Ermuko futbol elkarteak ere. 3 aldiz egiten dituzte entrenamendu saioak Beti Ondoko zelaian. Gure inguruko herriek, Elgoibar, Berriz, Elorrio, Durangok... badute nesken futbol talderen bat nahiz eta ermuarrek baino urte gehiago daramatzaten lehia honetan.

Ikastolak ere taldea

Ermuko futbol Elkarteak ezezik, Ikastolak ere aurtan

nesken taldea sortu du. Infantil mailakoa hain zuzen. Esperientzia berria den arren, oso pozik agertu dira Antonio Ortega eta Antonio Iglesias entrenatzaileak. Iaz ere, taldea aurkezteko asmoa zuten baina berandu samar ibili ziren eta ondorioz ez zuten aukerarik izan. Aurtan lehia gogorra izan dute, infantil mailako lehen urtea izaki, beraiek baino zaharragoak diren

nesken aurka aritu behar izan baitira. Bilbo aldean izan dituzte neurketa gehienak eta etxean arezko zelaian jardun behar izan dute. Txapelketa amaitu dute jada eta orain kopako lehiaketari egin beharko diote aurrez aurre. Alaitz Seoane izan da taldeko golegile nagusia nahiz eta gainontzekoek ere, lan polita burutu duten.

Asier Ibaibarriaga



MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

KAFETEGIA
XAGUA

Zubiaurre kalea, 23 behea